

Plan Estrategikoa 2021-2025

DATOZKIGUN ERRONKEI
ERANTZUTEKO IPARRORRATZA

TRINPART

ALDIZKARIA / 2022ko ekaina / www.haurtzaroikastola.eus

AURKIBIDEA

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_06
Irakasleak	_08
Gurasoak partaide	_10
Urmendi	_11
Hatzak bete lan	_16
Taldea	_32
Laburrak	_36
Eskolaz kanpokoak	_40
Oiartzo	_42

TXINPART

Haurtzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
T.: 943 49 16 59
haurtzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
DIXIDU Diseinu Grafikoa



AGURRA

Kaixo guztioi, hemen daukazue Txinpart! aldizkariaren 77. zenbakia. Sei hilabete atzera egingo bagenu, nork esan behar zigun ikasturtearen altuera hauetan, pandemia atzean utzita izango genuenik. Zorionez honela da eta pixkanaka pandemia aurreko funtzionamendu eta ohituretara itzultzen ari gara. 21-22 ikasturteari agur esan eta 22-23 ikasturtea prestatzen hasiak garen honetan, eta kontrakorik ez bada behintzat, bi ikasturteren ondoren, berriz ere normaltasunez igarotzeko ikasturtea izango dugunaren esperantza dugu.

Eskuartean edo gailuan duzuen Txinpart!-en ale hau ere, bete-betea dator. Nabarmentzekoa, azkeneko Batzar Nagusian onartu genuen Plan Estrategikoaren berri duzuela bertan. Guraso eta langile ordezkariekin adostutako Plan Estrategiko honetan Haurtzaro Ikastolak hurrengo 4 ikasturteetan martxan izango dituen lan ildo nagusiak dituzue. Etorkizun hurbilean dauzkagun erronkak ez dira makalak: matrikulazioari zuzenean eragiten dion jaiotze tasaren jaitsiera, Legebiltzarrean lantzen ari diren Hezkuntza Lege berria... eta prest egon behar dugu erronka horiei eutsi eta aurre egiteko.

Aipatzeko moduko berria ere badugu, ikastola jasangarria denaren aintzatespen ziurtagiria berritu dugula. Haurtzaro Ikastolak ikastola jasangarria denaren zertifikazioa izaten jarrituko du eta hezkuntza komunitate osoari zorionak emateko modukoa da.

Bestelakoan, betiko atalak ere eskura dituzue eta Haurtzaro Ikastolako ekimen ezberdinen berri izateko aukera paregabea. Jarri eroso eta goza ezazue!



Plan Estrategiko batek, hurrengo urteetan jarraitu beharreko lan ildo nagusiak ezartzeko balio digu. Haurtzaro Ikastolan proiektu askotan hartzen dugu parte, egitasmo ugari ditugu martxan eta hezkuntzarekin zerikusirik ez duten hainbat eremu kudeatzen ditugu. Hau guztia ahalik eta era ordenatuenean egin ahal izateko ezinbesteko tresna dugu Plan Estrategikoa. Haurtzaro Ikastolako hurrengo 4 urteetarako Plan Estrategikoa onartu berri dugu azkeneko Batzar Nagusian.

2021-2025 urteak hartzen dituen Plan Estrategiko hau, 7 eremutan banatuta dago: Erakundearen Planteamendua, Antolakuntza Egiturak, Elkarbizitza, Tutoretza eta Orientazioa, Curriculum, Familia eta Ingurua, eta Administrazioa eta Zerbitzuak. Datokigun erronkei erantzuteko, Haurtzaro Ikastolak jarraituko duen iparorratza izango da.

Plan Estrategikoa eskura dauka interesa duen orok, baina modu laburrean, ondorengoak dira Haurtzaro Ikastolak hurrengo 4 urteetarako izango dituen lan ildoak:

1. EREMUA: ERAKUNDEAREN PLANTEAMENDUAK

MATRIKULAZIOA. Datozen 4 urteetarako matrikulazio ehunekoak mantentzea, matrikulazioari eustea eta gela kopuruak mantentzea dugu ildo nagusia. Jakina da azken urteetan EAEko jaiotze tasa behera doala eta Oiarzunen ere joera berdina dela. Orain arte, Haurtzaro Ikastolak maila bakoitzean 3 gela dauzka, baina jaiotza tasa jaisteak hau arriskuan jartzen du. Ondorioz, bertako langileria egonkortasunean eragin zuzena dauka eta kontzertuen bidez jasotzen dugun finantzazioan ere bai. Ildo honetan, 3 gela hauek mantentzeko hainbat helburua finkatzen dira.

EUSKAL HEZKUNTZAREN ERREFERENTEA. Haurtzaro Ikastolak bere sorreratik oso argi izan du Euskal Hezkuntza sustatzea duela helburu estrategiko

garrantzitsuenetarikoa bat eta bizi ditugun garaiei egokituz bide honetatik jarraitzea da helburua.

IKASTOLAKO KOMUNIKAZIOA PLANA. Gaur egun ezinbesteko bilakatu da sare sozialetan egotea eta bestelako komunikazio euskarriak (webgunea, aldizkariak, prentsa...) ere egoki lantzea. Hau guztia bideratuko duen ildo dugu hau, modu profesional batetan garatu eta gauzatuko dugun helburua.

ESKOLA JASANGARRIA IZAN. Haurtzaro Ikastolak, duela 5 urte, ikastetxea jasangarriaren aintzatespena lortu zuen eta Agenda 21eko helburuekiko konpromiso irmoa izan du. Bide berdinetik jarraituz, ikastola jasangarriaren aintzatespena berritu eta Eskolako Agenda 2030 egitasmoaren garapen iraunkorreko helburuak lantzen jarraitzea da helburua.

2. EREMUA: ANTOLAKUNTZA EGITURAK

ANTOLAKETA ERABERRITZEA. Kooperatiba integrala izanik, bazkidearen atala eta organigrama birplanteatzea beharrezkoa dela balioetsi dugu. Gizartea aldatuz doa eta orain arteko antolaketa buelta bat eman eta eraberritzea da helburua.

DENON PARTE-HARTZEA BERMATZEA. Gero eta gehiago kostatzen da hezkuntza komunitatearen parte-hartzea lortzea ikastolan antolatzen ditugun ekimen ezberdinetan. Taldean lan egiteko kultura lantzea du helburu ildo honek.

LAN BAZKIDEEN EGONKORTASUNA. Ikastolako langileria egoerari jarraipen bat eginez, adinarengatik jubilatzearen daudenei planteamendu egokiena aurkeztu, langileria berrikuntza bideratu eta balizko matrikulazioaren jaitsierarik balego, egon daitezkeen aldaketak aurreikustea da helburua.

3. EREMUA: ELKARBIZITZA

BIZIKIDETZAREN LANKETA KOMUNITATE OSOAK. Ikastolak ikasleentzat, familientzat eta langileentzat leku segurua izan behar du eta horretarako beharrezkoak diren ekimenak bultzatzea eta jarraipena egitea du helburu ildo honek.

BIZIKIDETZA SENDOTU. Partaide askok osatzen dugu Haurtzaroko hezkuntza komunitatea eta bizikidetza da oinarri garrantzitsuenetarikoa bat. Bizikidetza hau sendotzea da helburua.

BALIO HEZITZAILEETAN OINARRITUTAKO BIZIKIDETZA SUSTATU. Bizikidetza eratzeke garaian, balio hezitzaileetan oinarritutakoa izatea nahi dugu (aukera berdintasuna, inklusioa, errespetua, lankidetzak...) eta hau sustatzea da ildo honen helburua.

IKASGELAKO GIROA IKASTEKO ETA IRAKASTEKO INGURUNE ATSEGINA IZAN DADIN SUSTATU. Ikasleen eguneroko jarduna hobetzeko estrategiak garatu eta irakasleen esku-hartze egokiak bideratzeko estrategiak lantzea du helburu ildo honek.

4. EREMUA: TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA

IKASLEEN ANIZTASUNARI ERANTZUN GUZTIENTZAKO IRIZPIDEAK JARRAITUZ. Ikasleriaren aniztasunari erantzuteko, orientatzaile/aholkularien eta irakasleen arteko lana koordinatzea eta familiak ikasleen heziketa ibilbidean orientatzeaz gain, ikasleak motibatu eta beraien garapenean laguntzea du ildo honek helburu.

TUTORETZA EKINTZA PLANA ADOSTU, GAUZATU ETA EGUNERATU. Ezinbesteko tresna dugu tutoretza ekintza plana, etapa bakoitzean gauzatuta dago, eta tutoretzatik gai ezberdinekiko ikasleekin egiten dugun lanketa jasotzen da bertan. Behin eta berriro balioestea eta balorazio hauen baitan berritzea du helburua ildo honek.

5. EREMUA: CURRICULUMA

0-18 PROIEKTUA ELKARLANEAN KOHESIONATU. Haurtzaron 0-18 proiektua daukagu: 0-2 urte bitarte Oiarzongo Udako Ikastola Partzuergoan (OUIP), 3-16 urte bitarte Haurtzaro ikastolan eta 17-18 urte bitarte Oiarzo ikastolan. Hiru erakunde izanik, bakoitza bere ezaugarriekin, ezinbestekoa da proiektu osoaren kohesioa bermatzeko erakundearen arteko koordinazioa eta lankidetzaren bideratzea.

HEZKUNTZA PROIEKTUA GARATU. Haurtzaro Ikastolak badu hezkuntza proiektu bat, baina proiektu pedagogiko berriak ezartzen eta daudenak eraldatzen goazen heinean gainbegiratu beharrezkoa da eta horixe da ildo honen helburua.

HIZKUNTZA PROIEKTUA GAUZATU: IKASLE EUSKALDUN ELEANIZTUNAK HEZI. Ikaslearen irteera profileen adierazten den bezala, euskaldun eleaniztunak izan daitezten, ikasleen artean irakurzaletasuna sustatu eta etapa guztietan hizkuntzen trataera integrala lantzea da helburua.

LANGILEEN PRESTAKUNTZA EGUNERATUA IZAN. Ikasturtero langile dozentek eta ez-dozentek prestakuntza plana egiten dugu, helburua langileen etengabeko prestakuntza izanik.

LANGILEEN GARAPEN PROFESIONALA SUSTATU. Langileen prestakuntza planaz gain, eguneroko jardunean, prestakuntza hauetatik lortutako jakintzak nola aplikatu eta lankideekin partekatu bilatzen da. Koordinazio eta hausnarketarako tarteak aurreikusi eta plangintzatzea da helburua.

EKINTZA OSAGARRIAK LANDU. Ikasturtean zehar hainbat ekintza osagarri egiten ditugu ikasleekin. Ekintza hauek balioetsi, berriak proposatu eta ikasleak momentuan lantzen ari diren proiektuekin lotura izatea (Irteera profila, konpetentziak, helburuak...) eta plangintzatzea du helburu ildo honek.

6. EREMUA: FAMILIA ETA INGURUA

HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOAREN PARTAIDETZA ETA ELKARLANA INDARTU. Ildo honek, familien partaidetza sustatzea du helburu, hezkuntza komunitatearen sena indartuz eta familiei zuzendutako guraso eskolak antolatuz.

IKASTOLAREN IZAERA HERRITARRA MANTENDU. Herriatik eta herriarentzat sortua izanik, Haurtzaro Ikastolak, Oiarzongo herriaren dinamiketan parte hartzen du eta herriko elkarteekin harremanak ditu. Ildo honek lanketa honetan jarraitzea du helburu.

7. EREMUA: ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZUAK

EGONKORTASUN EKONOMIKOA EMANGO DUEN KUDEAKETA GARDENA BURUTU. Ekonomikoki bideragarria izan behar du ikastolak eta honetarako aurrekontuak doituak eta gardenak izateaz gain, altxortegi osasuntsu bat edukitzea da helburua.

GIZA BALIABIDEEN ALDETIK IKASTOLAREN ETORKIZUNEN EGONKORTASUNA BERMATZEKO LANGILEEN PROFILAK DEFINITU ETA LANGILE BERRIEN JARRAIPENA EGIN. Ikastolak, bere hezkuntza proiektua aurrera eramane ahal izateko, une oro, beharrezko dituen langile profilak aztertu behar ditu kontratazio berrietan aintzat edukitzeko. Langileak ebaluatu eta prestakuntza planak eguneratzea ere bai.

02. BERRIKUNTZAK



IRAKURKETA PLANA OSATU DUGU

Irakurtzearen definizioak gizartearekin eta kulturarekin batera eboluzionatu du urteetan barrena, eta oraindik ere eboluzio horretan dihardu atsedetik gabe. Komunikazioaren eta informazioaren gizartean irakurketaren definizio kontestualizatu baten beharra ezinbestekoa da, eskolak alfabetizazio horrekin egingo duen zereginaren mamia garatzerako orduan.

Kasu honetan, irakurketa testuen interpretazioa dela esan dezakegu, hizkuntza idatzia konprenitzeko egiten dugun prozesua, hain zuzen ere. Eta baieztapen hori egiteko orduan, testu tipologia zabal bat hartzen dugu kontuan, gizartean aurki ditzakegun testu motak anitzak baitira. Gainera, irakurketa baldintza desberdinen baitan gertatzen den prozesu kognitiboa da (irakurlearen helburuen,


”

Haurtzaro Ikastolako egoeraren diagnostia egin, jadanik ikastolan egiten diren ekintza guztiak bildu eta egindako proposamen berritzaile guztiekin batera, Irakurketa Plana osatzen aritu gara.


testuaren mamiaren, irakurlearen aurrezagutzen baitan, prozesua non eta zein egoeratan gertatzen den...).

Baina prozesu kognitiboa izateaz gain, gozamina helburu duen ekintza da. Era askotako testuak gero eta modu autonomoagoan eta askotariko helburuekin irakurtzeko ohitura sustatzea da, hain zuzen, irakurzaletasunaren xedea. Irakurtzeko plazerean hezi behar ditugu ikasleak, norberaren buruarekin gustura sentitzeko helburuz egiten den irakurketan. Jakinik, gainera, irakurzaletasunak ikasleen garapenari ez ezik, eskola-arrakastari ere laguntzen diola.

Irakurtzeko ohitura sendotzea ikasleen heziketaren funtsezko alderdia da; beraz, horregatik ikastolaren helburuetako bat da; eta horretan, familiak eta inguruak ere parte hartu behar dute. Asmo horiekin guztiekin, urteotan, Haurtzaro Ikastolako egoeraren diagnostia egin, jadanik ikastolan egiten diren ekintza guztiak bildu eta egindako proposamen berritzaile guztiekin batera, Irakurketa Plana osatzen aritu gara. Datozen ikasturteetan, guztion artean, abiarazi eta irakurketa nahiz irakurzaletasuna sustatzen jarraituko dugu.



PIZTU JAKINMINA TOPAKETAK



Ikastolen elkarteak *Piztu jakinmina* topaketak antolatu ditu aurten ere Zumarragan maiatzaren 11 eta 18an. Topaketa hauen helburua Ikastola desberdinetako esperientziak partekatzea izan da, baita irakasleen arteko sarea indartzea ere.

Eman eta hartu horretan, elkarrekin ikastea, elkarrekin jakinmina piztea eta aberastea izan da xedea. Horretarako esperientzia arrakastatsuez gain, aditu baten esperientziak aditzeko aukera ere izan dugu.

Haurtzaro Ikastolatik ere joan gara DBH3. mailan urtero egiten dugun proiektu bat aurkeztera. Zehazki, Gaztelania eta literatura arloan 3. ebaluazioan *Amonen Festa* ospatzen dugu eta interesgarria iruditu zaigu gainontzekoekin aipatutako jarduera hau partekatzea.

Amonen Festa

Proiektu honetan bi atal nagusi bereiz ditzakegu. Alde batetik, amonari idazten dioten eskutitza eta bestetik, *Amonen Festa* deituriko ekitaldia.

Hasteko, ikasle bakoitzak bere amonari elkarriketa egin behar dio eta grabatu. Behin lehenengo pausu hau emanda, elkarriketan emandako erantzunak transkribatu eta argazkia atera behar dute amonarekin. Ondoren, elkarriketatik abiatuta, amonari eskutitz bat idazten dio ikasleak, apainketa bere gustura eginez.

Ekitaldiari dagokionez, ikastolako areto nagusian ikasleak eta ikasle bakoitzaren amonak biltzen dira. Musika jarri eta dantza taldeko arkuak hartuta ikasleen ongietorria jasotzen dute amonek. Bertsoak, dantza eta musika saioak izaten dira. Ekitaldia amaitzeko, ikasle bakoitzak lehenagotik idatzi duen eskutitza ematen dio amonari.



04. GURASOAK



DBH2. MAILAKO GURASO ESKOLA, AGIPAD ELKARTEAREN ESKUTIK

Aurtengo ikasturtean, DBH2. mailako ikasleek AGIPAD elkarteko teknikariaren eskutik eta Etikako saioetan, arloko irakaslearen eskutik, droga mendekotasunaren inguruko lanketa egin dute. Ikasleek jorratu dituzten gaiak alkohola, edari energetikoak, tabakoa eta bestelako substantziak izan dira.

Horren harira, gelan ikasleek egindako lanaren berri emateko nahiz gurasoen kezkei erantzuteko, gurasoentzat formazio saioa antolatu genuen, apirilaren 7rako, ikastolako jantokiko goiko solairuan.

Bertan parte hartu zuten gurasoek adituaren ahotik ikasgelan jasotako iritziak eta bizipenak jaso zituzten eta, era berean, dituzten kezkak, zalantzak edo galderak mahai gainean jartzeko aukera izan zuten.

05. URMENDI



ZER EGIN DEZAKEGU HELDUOK

Haurra garapen egoki eta osasuntsuan aritzeko eta heldutasun / autonomia prozesuak indartzeko.

Galdera horri erantzuteko helburuarekin ekarri genuen abenduan Alvaro Beñaran psikomotrizista eta pedagogo haur eskolara, baina oraingoan gurasoak izan zituen parean.

Bi orduko saioak azalpen interesgarri askotarako eman zuen, eta bukaeran ere izan zen nahiko tarte familien galderei erantzuteko.

Ezin dira lerro bakar batzuetan esandako guztiak bildu, baina Beñaranek esandako zenbait kontu esanguratsu hona ekartzea interesgarria iruditu zaigu:

05. URMENDI

- Nolako haurrak nahi ditugu? Haur autonomoak, arduratsuak, beren buruaz arduratzen direnak, bizitzari aurre egiteko baliabideak dituztenak nahi edo behar ditugu. Beraien bizitzarekin nahiko gustura egongo direnak, **nahiko**. Ez dugu perfekzioa bilatzen, baizik beraien buruarekin nahiko gustura egotea, beren burua nahiko seguru sentitzea (beldur gehiegirik ez izatea), eta indibidualtasuna garatzetik balore sozialak ere garatzea. NI-NItik harago bestea ere kontuan hartzea, hori bai baita zailtasun bat gizakiongan. Beti abiatzen gara NI horretatik, eta kosta egiten zaigu komunitatearen alde gurea frustratzea.
- 1-3 urte bitartean haurrak **identitatearen bi maila** eraikiko ditu. Lehenengoan eta, betiere, adina aipatzea erreferentzia gisa hartu behar dela kontuan hartuz, bere izatearen oinarria eraikiko du: **NAIZ**. Umea zaindua izan bada eta sentsazio atseginak biziarazi badizkiogu, bere burua nahiko seguru sentituko du, nahiko ongi babestu eta zaindu dutelako. Bere existentzia bermatua dago, eta beraz “existentzia NAIZ” esan dezake. 1-3 urte bitartean aldiz, **NI NAIZ** agertzen da. 3 urte inguruan haurrak besteengandik banatzea lortu behar dute, eta NI NAIZ esan behar dute (ez da NAIZ bakarrik).
- Gaur egun arrisku handia dago pantailekin. 0-6an ez da **pantailarik** behar, pantailak ez du helduok haurarekin dugun harremana ordezkatu behar. Haurra lasaitzeko, bazkaltzeko, lotarako edo negar ez egiteko pantaila erabiltzen badugu, berarekin dugun harremana ordezkatzeko ari da.
- Orain dena galderen bitartez hitz egiten zaie. “Afaldu nahi duzu?”, “Joango gara ohera?” eta badakizue zein den hitz magikoa adin horretan? EZ. Galdetzen baduzu, aukera ematen ari diozu haurrari ezezkoa erantzuteko. Beraz, **ez badu aukerarik, ez galdetu, ESAN**.

- **Frustrazioaz** hitz egiterakoan, garrantzitsua da konturatzea ez dela zerbait negatiboa, alderantziz, **gaitasun** bat dela. Beraien adinari dagozkien beharrak bizitzeko aukera badute (mugitzea, jolastea), horiek bermatzen badira eta haurra afektuz tratatzen bada, gero ez dago arazorik haurrari mugak jartzeko, ezetz esateko, frustratzeko. Konfiantza eduki behar dugu umeengan, ez dira hain kristalezkoak. Azken garai hauetan kristalezko umeak egiten ari ga. Ez dugu nahi gure umeak sufritzerik, baina haurrak benetan sufritzen du gauza larriak gertatzen direnean, bestela ez. Zer gertatzen da frustrazio bizitzean? Umea haserretu egiten dela, besterik ez.



Irakasleon trebakuntza

Ikasturtero bezala, aurten ere eskaini diogu tartea irakasleon formazioari.

Urtarrilean gaitasun handiko haurren inguruko sentsibilizazio saioa egin genuen Amaia Agirianorekin, psikologoa eta gaian aditua.

Azken hiru hilabeteetan, berriz, AEKren eskutik, euskaraz egoki idazteko 6 orduko trebakuntza ikastaroa egin dugu, arauak errepasatu, berriak ikasi, eta ahaztutako formak eta idazkerak birgogoratzeko.

Urmendi Festa

Oraingoan, haur eskolari dagokion tarte honetan, 2015 urteari begira jarriko gara eta hemen ere, askotan errepikatu izan dugun ezaugarri esanguratsu bati helduko diogu: **Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa (Urmendi Haur Eskola) gure herrian sortu eta txertatuta dagoen hezkuntza proiektu propioa dela.**

Behin, ideia honen kontzientzia berreskuratuta 2014-15 ikasturtean haur eskolako hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok heldu genion erronka berri baten istorioa kontatzera gatoz: URMENDI FESTARENA, ALEGIA.

Udal eta ikastolako ordezkariekin hilero burutzen ditugun Zuzendaritza Batzordeko bilera batean sortu zen ideia honen lehenengo txinparta. Zer antolatu zezakeen haur eskolak Oiartzungo herritarrentzat?

Ondoren, haur eskolako guraso zein hezitzaileok osatzen dugun Batzorde Orokorrean proposamen honen berri eman genuen eta aho batez heltzeko erabakia hartu zen, interes handiz, gainera. Beraz, hona ekarritako txinparta hau hauspotzeri ekin genion denok batera, guraso eta hezitzaileak elkarrekin.

Idea zaparradaren ondoren, pixkanaka asmoa zehazten eta fintzen joan ginen bilera desberdinetan zehar. Horrelaxe sortu zen Urmendi Festa egitearena. Ez zen erronka makala, baina bai berria eta ilusioz bete!

Iritsi zen azkenean, 2015eko maiatzaren 31ko igandea. Udaberriko egun eguzkitsua. Goizean goiz, gurasoek nahiz hezitzaileek Urmendi eraikinean elkartu eta txoko desberdinak atontzeari eta antolatzeari ekin genion; talo txokoa, frutarena, goxo denda, aurpegi margotzeko gunea, herri kiroletarako espazioa, antzerkirako eszenatokia eta azken entseguak, hau guztia, musikarik falta gabe noski.

10:30ak aldera hasi ziren guraso zein haurrak gurera hurbiltzen, familia mordoa bildu ginen bertan. Sarreran guztiak elkartu eta zenbait guraso eta

05. URMENDI



hezitzaileen artean prestatutako antzerki polit batekin eman genion hasiera festari. Ondoren, Urmendiko plazaren bueltan atunduriko txoko zein dendatxoak ireki eta haurrek hauetan esperimintatzeko eta disfrutatzeko aukera paregabea izan zuten; haurrek beraiek egindako taloak, fruta pintxoak, apaindutako madalenak... jan zituzten. Izan ere, gure txikiak izan ziren egun horretako protagonista! Baina, helduontzako ere gure sukaldariak prestatutako hamaiketako goxorik ez zen falta izan.

Onartu beharra dugu, kolorez beteriko festa alaia eta zoragarria izan zela! Izandako arrakasta ikusirik, urtero egin izan dugu festa, pandemia iritsi bitartean.

Bueltan da festa!

Bi urteko etenaren ondoren, pasa den maiatzaren 29an ospatu genuen Urmendi Eguna. Familiek eta irakasleek elkarlanean ilusioz egin genituen aurretik prestaketa lanak, eta eguna ere zoragarri pasatu genuen!

Denok parte hartu genuen arren, txikiak izan ziren eguneko protagonista, dudarik gabe, esperimintatuz eta gozatuz.

Datorren udaberrian ere ez da gurean festa eta kolorerik falta izango, egon zaitezte ziur!



Zapaburuak etorri eta igelak joan

Ustekabean, zortzi zapaburuko kuadrilla iritsi zen gure geletara. Igerilari trebeak alajaina!

Gurean egon ziren bitartean ontzi zabal, garden eta txukun bat bilakatu zen haien bizileku. Bi egunez behin, salabardoarekin harrapatzen genituen, ura aldatzen genien, jaten eman eta asteak pasatu ahala, haien garapenaren behaketa egin genuen.

Ikusi genuen lehendabizi, nola ateratzen zitzaizkien hanka luze-luzeak, hurrena besoak; buztana gero eta laburragoa zuten, eta halako batean... IGEL TXIKI BILAKATU ZIREN. Uretan baino harri gainean denbora gehiago pasatzen zutela ikustean, txandaka eraman genituen Txarako erreka ertzerara. BIDAIA ON IGELTXOAK!

Denontzat oso esperientzia atsegina izan da zapaburuak zaintzea eta horien eraldaketa prozesuaren testigu izatea. Hemendik aurrera Txarako erreka hurbiltzen garenean, adi egongo gara ea igelak ikusten ote ditugun... KROAK-KROAK!



HATZAK BETE LAN

HH3

UDABERRIAN KANTUZ, KUKU JAUNA KUKU!

UDABERRIA IRITSI ZAIGULA ETA, HH3 URTEKO IKASLEAK EDERKI IBILI GARA GIRO EPEL ETA ATSEGINEAN MURGILDUTA.

BATETIK, GARAI BATEKO ARTIKUTZAKO TRENAREN IBILBIDEAREN ZATI BAT EGIN GENUEN, XORROLA BIDEA.

BESTETIK, AZENARIO ERRALDOIAREN IPUINAREN HARIRA, AZENARIO BIZKOTXO EDERRA PRESTATU GENUEN. BIKAINA ATERA ZITZAIGUN!

ETA AURTENGO UDAN ETXEAN TOMATEAK JAN AHAL IZATEKO, TOMATEA EREIN DUGU GELAN. EA TOMATE ERRALDOIAK ATERATZEN ZAIZKIGUN...

IKUSTEN DUZUENEZ ENERGIAZ BETETA GAUDE. ALTZA PORRU!



HH4


UDABERRIA ETA ESKOLAKO AGENDA 2030

NEGUAN ZELAIK BEHATZEN IBILI GINEN BEZALA, UDABERRIAN ERE GAUZA BERA EGIN DUGU ETA... A ZE SORPRESA! LURRA ESNATZEAREKIN BATERA ZELAIK XOMORROZ ETA KOLOREZ JANTZIAK TOPATU DITUGU.

LANDAREAK ETA LOREAK USAINTZEN, UKITZEN, DASTATZEN ETA TXORIAK ETA KILKERRAK ENTZUTEN, NATURAZ GOZATZEKO AUKERA IZAN DUGU. HORREZ GAIN, LANDARE, LORE ETA XOMORRO BATZUEN IZENAK IKASI DITUGU, BAITA GURE INGURUNEA ZAIINTZEAK DUEN GARRANTZIAZ JABETU ERE.

BUKATZEKO, GORPUTZA ASTINDUZ, UDABERRIARI ONGI ETORRIA EMAN DIOGU.

IKUSI, IKUSI... ETA ANIMATU GUREKIN DANTZATZERA!



HH5

HH5EKOEK LANDUTAKO BARATZA

HH5EKO IKASLEEK AURTEN ERE BARATZA ANTOLATU DUGU. HEMEN DUZUE PROZESUA:



2 LURARI BUELIA EMAN



3 BELARRA KENDU



3 GOROTSA BOTA



4 LANDAIA EROZI



5 LANDATUEA UZATU



6 FORIMLOA EGIN



7 LANDAREET PZENA JARRI

8 TXI TURARRESTATU



LH1

Juan Kruz Igerabideren bisita

Kaixo lagunak!

Lehenengo mailako hirugarren unitatean Nire gorputzean bizi naiz obra literarioa landu dugu. Ba al dakizue zein den obra honen idazlea? Bai, Juan Kruz Igerabide da. Guri liburua asko gustatu zitzaigunez, berarekin harremanetan jarri ginen eta ea gurekin bere lan egiteko moduak partekatzeko prest zegoen galdetu genion. Baiezkoa eman zigun eta otsailaren 7an bere bisita izan genuen.

Goizean giroketa lana egin genuen eremua apainduz, bere liburuak aukeratuz eta galderak prestatuz. Juan Kruzek gauza mordoak kontatu zizkigun: bere egunerokoa nola den, ilustratzailearekin harremanak nola egiten dituen, ideiak nola etortzen zaizkion, bere bilobekin dauzkan istorioak... Guk prestaturiko galderak ere ederki erantzun zituen. Gelan aurrez landutako bere olerki batzuk ere irakurri zizkigun.

Hona hemen egun hartako gure bizipenak:

GUK PRESTATUTAKO GALDERAK
EGIN GENIZKION JUAN KRUIZ ETAK
DENAK ERANTZUN ZIZKIGUN.
ASKO IKASI GENUEN.

JUAN KRUIZ IGERABIDEK

OSO IRUN POLITAK
EGITENDITU
ERABARRA ASKOKASIGEHEN
ETA GAIERA HERRI ASKOGUSTAISEN ZAIT

JUAN KRUIZ ETORRI ZENEAN
ETA LIBURU BATZUK KONTATZIZKIGUN
ETA OSO AITXEGINA IZANZEN.



LH2

Argiarekin jolasean, itzala lagun

Kaixo lagunak!

Egunsentiarekin batera bagatoz gu ere egin dugunaren berri ematera.

Kimuko *Itzal itzela* unitatean argiarekin jolasean aritu gara etengabe. Behaketak, hipotesiak, ikerketak tartekatu ditugu eta argi motak, eguzkia-eguna, izpien jarrerak, itzalak, koloreen sorrera etab. landu ditugu.

Ohiko kanpo saioak egiteaz gain, Eureka Zientzia museoan ere izan gara eta ikuspegi zientifikotik ere asko ikasi dugu.

Gaia borobiltzeko, azken proiektu gisa, itzal antzerki ezberdinak sortu ditugu mailakideen artean: pertsonaiak sortu, antzokia egin, silueta gorpuztu, gidoia egin eta entsegu sorta burutu. Ondoren, ikuskizuna elkarri eskaini diogu. A zer gozatua!



LH3

Haizearekin jolasean, Chillidaren gisan

Txanelako 5. unitatean *Airea* lantzen aritu gara, Plastikako saioan haizea nola irudikatu, haizearekin jolasean ibili gara.

Haizea, ura (itsasoa), harkaitzak, sua elkartzen diren txoko bat antolatu zuen Txillidak, Haizearen orrazia! Han izan gara leku magiko hau ikusten, sentitzen...

Txillida Lekun Txillidaren berri izateko aukera izan dugu, eskulturak ikusi, sentitu, ukitu ditugu. Bakoitzak han ikusitako eskultura aukeratu du ondoren, plastikako hurrengo saioan aukeratutakoa marraztu eta, ondoren, plastilina eskultura osatu dugu.

Ikastolako korridorean ikus daitezke, gustua baduzue!



06. HATZAK BETE LAN



LH4

F eta Jrekin batera hizkiak askatzera!

Letrak bahitu dituzte! Atzera maltzurak letrak, zenbakiak eta zeinuak bahitu ditu eta preso ditu Hatz10 uhartean. Gainera, oroimena ezabatu die eta orain ez dute gogoratzen zertarako balio duten.

F eta J letren laguntzaz, LH4. mailakoak astean ordu erdiz joaten gara Hatz10 uhartera.

Pazientzia handiz, karaktereak erreskatatzen ditugu!

LH4. mailakoak aurten hasi gara **mekanografia ikasteko** Ikastolen Elkarrekin garaturiko Hatz10 aplikazioa erabiltzen. Lehenik, norbera, inoren laguntzarik gabe, HATZ10ek eskaintzen dituen eduki eta tutorialak jarraituz,



ordenagailuko teklatura modu zuzen eta eraginkor batez erabiltzen ikasten ari gara. Dagoeneko gure eskuetako hamar hatzak non eta nola kokatu ikasi dugu.

Hurrengo urteetan ere, ikasten eta hatzak trebatzen jarraituko dugu!



LH5

Milaka lore, mila kolore


3. Unitatean identitatea, kultura, identitate kulturala, kulturantzatasuna eta kulturartekotasunaren kontzeptuak taldeka ezagutu eta, hausnartu ondoren, gelaka definitu eta beraien kontzientzia hartu dugu: bai gure izatean, bai ingurunean, baita arte adierazpenean ere. Ondoren, **gela bakoitzak** guztia **artistikoki zer elementu sinbolikoaren** bitartez adieraziko dugun erabaki du.

Horrela, gela batean **eguzki lorearen** sinboloa hautatu dugu honoko mezu hau adieraziz: **"desberdinak gara, baina kulturak (erroak) elkartzen gaituen lore aberasgarria gara"**.

Beste gela batean, **ur tantaren** sinboloa adostu dugu: **"bizitza ur zaparrada da eta ur tanta guztiek ematen digute aukera itsaso zabal bakarra osatzeko"**.

Beste batean, jasotako guztia **pinpilipauxaren** irudiarekin adierazi nahi izan dugu: **"pinpilipauxak lorez lore, aske, ibiltzen dira, eta hegan eginez edertasuna osatu eta zabaltzen dute"**.

Eta azkenekoz, beste gela batean, **puzzlearen** sinboloa aukeratu dugu: **"gizartearen puzzleko irudi osoa lortzeko pieza bakoitzak duen balioaz (identitatea, kultura ezaugarriak...) jabetzea ezinbestekoa da"**.





LH6

Joseba Sarrionandia ezagutzen

Apirilaren 1ean Udal Pleno aretoan bisita berezi bat izan genuen LH6. mailako ikasleok, Joseba Sarrionandia euskal idazleak arratsaldea pasatu baitzuen gurekin. Kultur trukaketa aberatsa bezain interesgarria egin genuen, ikasleok Sarrionandiaren lanak gertutik ezagutu ondoren, bera ere ezagutzeko aukera izan genuelako.

Saioaren aurreko asteetan ikasleok Josebaren lanak aztertu genituen; olerkia, narrazioa eta bestelako obretan sakondu genuen gelaka. Lanak irakurri, ulertu, aztertu, bizitu eta hausnartu ondoren, sentitu eta pentsatutakoa Josebari itzultzea erabaki genuen. Horretarako, talde bakoitzak idazlearen obra bat aukeratu zuen Sarrionandia eta bere lana sakonki ezagutzeko eta ikasitakoa eskaintzeko asmoz.

Ipuinek eman zieten hasiera gure arteko harremanari. Hain zuzen, Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak liburutik hainbat pasarte hautatu eta haietatik elikatu ginen. Pasarte horiek aukera eman ziguten elkarren arteko errespetuaz, begiramenaz eta miresmenaz hausnartzeko.

Horrez gain, pasarte horiek ilustratu genituen eta idazlearen esku jarri genituen hausnartutakoak eta ilustrazioak.

Poesiaren aire freskoak ere astindu zuen aretoa. Sarrionandiaren poesia liburuetatik abiatuz poema gustukoenak hautatu, haien soinuak entzun eta errimak errepikatuz ibili ginen idazlearen doinu eta erritmoan geu ere idazle bihurtu arte.

Saioa amaitzeko Joseba Sarrionandiaren harribitxiak ekarri genituen oholtzara. Definizioak hankaz gora jarri, ipuin bitxiak arakatu eta haietatik sortu genuen gure harribitxi propioa aurkeztu genion gonbidatuari.

Irribarretsu, goxo eta pozik amaitu genuen denok arratsaldea. Urteetan Josebak euskararen bidez guri eskaini diguna, berari itzultzeko aukera izan genuen. Momentu berezi honetan ereindako hazia loratuko da ziur!

MATEMATIKA LEHIAKETA

DBH2 eta DBH3. mailako ikasle batzuk Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean izan ziren larunbatean, apirilak 23, XXV. Udaberriko Matematika Lehiaketaren 2. fasean parte hartzen.

DBH2koak honakoak izan ziren: **Nara Susperregi, June Irigoien, Leire Suarez eta Markel Uzkudun.** DBH3koak, berriz, **Peru Alijostes eta Egiar Otegi.**

Bejondeizuela!



Leire Suarez Yagüe Maila: DBH 2A

- **Zergatik parte hartu zenuen?**
Esperientzia ona iruditu zitzaidalako lagun batekin lehiaketa batera joatea.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?**
Joateko ilusio handiarekin.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Lagun batekin joan izana, horrela hobeto pasatzen delako.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?**
Dibertigarria izan da horrenbeste pertsonekin batera lehiatzea. Oso ongi pasatu dut, nahiz eta hasieran urduri nintzen.

Enaitz Alfonso Legorburu Maila: DBH 3C

- **Zergatik parte hartu zenuen?**
DBH1en nintzela parte hartu eta bigarren fasera joango nintzen, baina ez zen egin, eta joateko gogoarekin geratu nintzen.

- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?**
Nahiko ongi ikusi dut. Egia esan, lehenengo fasean baino hobeto.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Deno diploma eman izana eta unibertsitate batean egon izanaren emozioa.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?**
Oso interesgarria izan da eta asko gustatu zait esperientzia berri hau, uste baino hobea joan da.

Markel Uzkudun Zabala Maila: DBH 2A

- **Zergatik parte hartu zenuen?**
Lehenengo urtean matematika tailerra egiten nuenean egun batean matematika txapelketako ariketa batzuk erakutsi zizkigun irakasleak. Interesgarriak iruditu zitzaizkidan, ez ziren jarraibide batzuk jarraitu behar; pentsatu egin behar zenuen nola egin, ez zenuen gai bat jarraitu behar eta batzuk modu bat baino

gehiago zituzten egiteko. Problema horiek "Profesor Layton" deituriko joku bateko puzzleen itxura zeukaten, baina matematika gehiagorekin. Une hartan parte hartu nahi izan nuen, baina pandemirengatik bertan behera gelditu zen. Orduan aurtan joan naiz.

- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?**
Oso ongi, horrelako ariketak egiteko ohitura nuen lehenagotik, baina egia da denbora gutxi uzten dutela eta problemak zailak direla.

- **Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Lehenago esan dudana berdina, pentsatzea gustatzen zait eta problemak konpontzea, konpontzeko bidea lortzea gehienetan problema konpontzea baino gehiago gustatzen zait. 5 minutu egotea nola konpondu pentsatzen, marrazki eta modu desberdin askotan marrazten, gero modu bat aurkitzen, eta probatzea ea funtzionatzen duen eta erantzuna lortzea.

- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?**
Polita, asko gustatu zait, hurrengo urtean ere joaten saiatuko naiz.

06. HATZAK BETE LAN



Nara Susperregi Barroso
Maila: DBH2C

- **Zergatik parte hartu zenuen?**
Matematika gustatzen zaidalako eta esperientzia berri eta ezberdin bat bizitzeko hartu nuen parte.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?**
Urduritasunarekin, baina pozik aurkitu nuen nire burua.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Diploma jasotzea izan da gehien gustatu zaidana.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?**
Oso polita izan da, gauza ezberdin bat probatu dut eta gustatu egin zait. Horrez gain, gomendagarria iruditzen zait, eta hasieran urduri egon arren, merezi duela esango nuke.

June Irigoien Matas
Maila: DBH2A

- **Zergatik parte hartu zenuen?**
Erronka bat planteatzen zuelako eta buruzko kalkulua gustatzen zaidalako. Gainera gauza berri bat zen niretzako eta probatu egin nahi nuen.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?**
Ondo, baina zeuden galderak ez ziren klasean emandako gaiak bezalakoak eta nahiko zailak ziren. Bestalde, emozionatuta aurkitzen nuen nire burua, izan ere, ez nuen bigarren fasera pasatzea espero.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Matematikako beste azterketa mota bat probatzea, izan ere, hauek buruzko kalkulukoak ziren eta klaseko azterketak formulenak izaten dira.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?**
Ustekabekoa eta zirraragarria. Ustekabekoa, ez nuelako espero bigarren fasera iristea eta zirraragarria, gauza berriak probatu ditudalako.

Peru Alijostes Irsatorza
Maila: DBH3A

- **Zergatik parte hartu zenuen?**
Matematika hainbatean gustuko dudalako eta lehiaketa nolakoa den jakin nahi nuelako.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?**
Nire burua aurreko fasean baino hobeto aurkitu dut, izan ere, prestatuago joan naiz.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Lehiaketako problema errazak.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?**
Gustura pasatu nuen goiz hori matematikako hainbat problema egiten.

Egiar Otegi
Maila: DBH3A

- **Zergatik parte hartu zenuen?**
Gogoia nuen bigarren fasea egiteko, jakin egin nahi nuen nolakoa zen eta azterketa egitea berak ere animatu ninduen. Gainera, aukera izanda, ez nuen aukera galdu nahi.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?**
Hasieran zaila iruditu zitzaidan azterketa, baina bukaeran hobeto moldatu nintzen eta azkenean nahiko sentsazio onarekin geratu nintzen. Lehen orduan galdera gutxi erantzun nituen, baina ondorengo ordu erdian lortu nuen beste batzuk egitea.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?**
Gehien azterketa bera gustatu zait, hura egitea eta lehiaketan parte hartzea.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?**
Hasieran, haraino (Leioara, Bizkaia) joatea arraroa egin zitzaidan, eta gero azterketan zailtasunak izan arren, nahiko ondo moldatu nintzen. Egia esan ingurua bera ere berezia zen.




DBH1
Zubiak irekitzen

Haurtzaro Ikastolan teknologia arloa ekintzailetasuna lantzeko espazio gisa ulertzen dugu. Ekintzailetasuna, enpresa berri bat sortzea baino gehiago da, arazo eta erronka berrien aurrean konponbidea bilatzen saiatzea da. Izaeraren parte da.

DBH1. mailan 2. ebaluazioan zubi bat diseinatzea eta eraikitzea eskatu ziguten, haien herriko zubi zaharra jausi zela eta. Horretarako egituren formak eta ezaugarriak landu genituen. Eskuratutako edukiak lantzeko zubi diseinatu eta eraiki egin behar izan genuen material birziklatuak erabiliz, eta hainbat eta hainbat neurri eta baldintza errespetatuz. Ondoren, 3. ebaluazioan *Sketch Up* programa landu genuen, ordenagailu bidezko marrazketarako programa da. Lan ezberdinen artean zubi bera paperean marraztu genuen.

Aniztasun handia izan genuen sortutako proiektuen artean, baina zubi modernoak eta esekiak izan ziren gure gustokoenak.



06. HATZAK BETE LAN


DBH2

Energia gora eta behera

Zenbat buruhauste energiarekin!
Ingurugiroa kutsatzen duela, garestitu dela... Baina energiaren funtzio ezberdinak ezagutzen al ditugu?

Energia beharrezkoa zaigula argi dago, eguneroko ekintzak egiteko ezinbestekoa dugu eta. Eta energia mota ezberdinak al daude? Zer ezaugarri ditu energiak?

Honen harira, hauek dira DBH2ko ikasleek kirol edo ekintza gustokoen energiaren aldaketak ikertu ondoren egindako infografiak.



DBH3

Gorputzeko aparatua ikasten, jolasaren bidez

2. hiruhilabetea DBH3ko ikasleak teknologia arloan 3 dimentsioetako diseinuekin eta elektrizitatearekin jolasean aritu gara. Biologia eta Geologia arloko edukiak kontuan hartuz, proiektu metadiziplinarra garatu dugu.

Honako egoerari aurre egin behar izan genion: DBH3ko ikasleak Biologia eta Geologia arloan gorputzeko aparatua lantzen dituzue. Horien ikasketa errazteko asmoz jolas bat diseinatu behar duzue.

Hortaz, bai biologia eta geologiako, baita teknologiako ezagutzaz ere baliaturik egoerari aurre egiteko diseinuak egin genituen lehenik Sketch Up bidez. Ondoren, planifikazioa egin eta tailerrean eraiki genuen jolasa.

Ikusi!



DBH4

Milimetroak 2022

Milimetroetako lehen ekintza kulturala apirilaren 26an ospatu dugu Oreretan: Gernikaren bonbardaketaren 85. urteurrenean Pablo Picassoren Gernika koadroaren bertsio gaurkotua osatu dugu Uzturpe ikastola (Kilometroak 2022 ospatuko den tokia), Orereta Ikastola, Pasai-Lezo Lizeoa eta Haurtzaro Ikastolaren artean. Bertan, DBH4.mailako 25 ikaslek parte hartu genuen.

Picassoren Gernika artelanaren behaketa zehatza osatu ondoren, lau ikasleetako ordezkariak elkartu eta denon artean lau proposamen egin genituen eta proposamen horretatik abiatuta sortu genuen ondoren telaren gainean eta denon partehartzearekin eraikitako gure Gernika artelanaren proposamen gaurkotua.





IHOTEA




IKASTOLA EGUNA



INAUTERIAK



KORRIKA



TALDEA



2016. urtean, Eusko Jaurlaritzak eslelitutako Eskola Jasangarriaren ziurtagiria lehen aldiz jaso genuen.

“ESKOLA JASANGARRIA” ziurtagiria berretsi dugu

ZORIONAK, Haurtzaroko komunitatea osatzen dugun guztioi

2016. urtean, Eusko Jaurlaritzak eslelitutako Eskola Jasangarriaren ziurtagiria lehen aldiz jaso genuen. Aipatu agiriak lau ikasturteetarako iraupena duenez, pandemiak eragindako azken ikasturte berezi hauen ondoren, 2021-22ko ikasturtean zehar agiria lortzeko urtebeteko prozesua abiatu genuen.

Maiatzaren hasieran, prozesu honetan auto-ebaluazioaren galdetgia aztertu ondoren, eta auditoria-bisita egin eta gero, Natura Ondare eta Klima Aldaketaren zuzendaritzak, Ikaskuntzaren

eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzak, eta Ingurugelak zoriondu gaituzte egindako lanagatik eta erakutsitako interesagatik.

Jaso berri dugun txostenean egin dizkiguten ekarpen sendoenak hauek dira:

- 1. JASANGARRITASUNA.** Helburua: hezkuntza komunitatean tokiko zein planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizazioa eta ezagutza landu, jasangarritasunaren aldeko jarrerak eta konpromisoak eragiteko.
 - *Eskolako Agenda 2030eko programak presentzia du ikastetxeko hainbat lekutan eta hasieran sinatutako hitzarmena leku publiko batean jarria dago.*
 - *Tutoretza Planean EA2030ari eta iraunkortasunerako hezkuntzari buruzko hausnarketari tartea ematen zaio.*
 - *Ikastetxearen edo ikasleen konpromisoak gela guztietan agertzen dira.*



- 2. KONPLEXITASUNA.** Helburua: ikastetxe eta udalerriko ingurumen arazoen konplexutasuna identifikatzea eta aztertzea, alternatibak proposatzea eta udal foroetan ezagutaraztea.

- *Eskolako elkarbizitza eta harremanak helburu dituzten proiektuak sustatzen ditu eskolak. Horren eredu da, esaterako, Haziak proiektua, Lehen Hezkuntzako ikasleekin abian jarri dena.*
- *Ingurumen alderdi ugari lantzen dira eta gai ezberdinak integratzeko ekimen egokiak martxan daude: zientzia tailerra, esaterako.*
- *Ikasleen proposamenek eta alternatibek ikastetxearen antolamendua eta funtzionamendua aldatzen lagundu dute, eta horren eredu dira Eskuttun eta Ikama taldeak.*

- 3. PROZESUA.** Helburua: ikastetxe eta udalerriko jasangarritasuna lortzeko prozesuak abiatzea.

- *Proiektuaren dokumentazioa ondo antolatuta dago.*
- *EA21 (egun EA2030) ebaluatzeko prozesuan, faseak eta emaitzak baloratzen dira. Ikastetxeak egin berri du erosketaren edo kontsumo iraunkorraren aldeko plana.*
- *Zentroan baliabideen kontsumoak (ura, energia ...) erregistratzen dira.*

- 4. PARTE-HARTZEA.** Helburua: Ikasleei bereziki, baina hezkuntza komunitate osoari, ikasketetan, ikastetxearen jasangarritasunean eta herriaren bizitzan protagonismoa ematea.

- *Udalak proposaturiko ekintzetan parte hartzen du. Udal foroan, kasu. Ikasleek proposatutako ekimenak kudeatzen direla egiaztatu da, “Euskaraz bizi nahi dut” ekimenean ikus daitekeen moduan.*
- *Borondatezko ikasle taldeak daudela eta baliabideak eta espazioa ematen zaiela egiaztatu da.*
- *Ingurumen batzordean familiek parte hartzen dute. Horren eredu da, esaterako, patioaren eraberritze prozesua.*

- 5. ELKARLANA.** Helburua: udalerriko edo eskualdeko eskolen arteko laguntza bultzatzea, baita erakunde eta ikasle eta irakasleen artekoa ere.

- *Azpimarratzekoa da goi-mailako ikasturteetako ikasleen eta gazteen arteko lankidetzak.*

- *Ikastetxearen egiaztatu da proiektuen arteko koordinazio- eta integrazio-estrategia bat badagoela.*

- 6. CURRICULUMA.** Helburua: Garapen jasagarriak dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko curriculum egokitzeko, diziplinartekotasuna sustatuz eta metodologia ikertzaileak eta parte-hartzaileak erabiliz.

- *Oiartzungo udalerria ezagutzeko hainbat irteera eta ekimen jarri dira martxan.*

- *Gatazkak elkarriketaren eta parte-hartze demokratikoaren bidez konpontzeko lana egiaztatu da.*

- *Ikasgai bakoitza eta egiten den jardura bakoitza ebaluatzen dute ikasleek, haien hausnarketa eta iritzia emateko aukerak hauspotuz.*

Eguzki plakak geure egin ditugu

2006-03-06an energia sarera konektatu ziren Haurtzaro Ikastolako terrazan kokatuak dauden eguzki plakak. Plaka horien jabetza Energiaren Euskal Erakundeak EEE-EVERena izan da, lehenengo 15 urteen produkzioaren etekina EEE-EVEk bereganatzen zuen. Oiartzungo Udalaren, EEE-EVERen eta Haurtzaro Ikastolaren arteko hitzarmenari esker, horren ondoren, Haurtzaro Ikastolaren izenean hasi da energia produkzioa.

2022ko maiatzatik aurrera, energia elektrikoko kontsumitzaileak izateaz aparte ekoizleak ere bagara. Goiener-ekin egin dugu hitzarmena, eta, Eskolako Agenda 2030eko helburuak erdiestetik gertuago gaude, izan ere Haurtzaro Ikastolaren eraikuntza gero eta jasangarriagoa da.

Beraz, Jasangarritasun Hezkuntzaren alde egiten dugun lanagatik, eta ahaleginagatik, ZORIONAK eta ESKERRAK luzatu eta zabladu nahi dizkizuegu.

...hemendik bagoaz...

Kaixo, euskararen lagun:

Orain dela 4 urte hasi genuen Eskuttuneko bidea. Bertako lehenengo bagoian sartu eta pixkanaka azkeneko bagoiraino iritsi gara. Urtez urte, batetik besterako pausoa eman dugu, hasieran genuen jakintza hori handiagotzen eta gure arteko harremanak sendotzen.

Azken urte hauetan hainbat ekitaldi antolatu ditugu. Besteak beste: Korrika 22, JUUL kanpaina, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Euskararen Eguna eta Argixoren etorrera, kirol lehiaketak... Eskerrak eman nahi dizkizuegu egun horietan gurera laguntza ematera hurbildu zareten guztiei, gurekin urtero bezala kontaktuan jartzeagatik, eta gu aintzat hartzeagatik.

Egia da, azken bi urte hauek inoiz baino zailagoak izan direla pandemiaren dela eta. Baina lanean jarraituz, eta asko saiatu ondoren, aurrera jarraitzea lortu dugu, noski.

Asteaz ordu betez soilik elkartzen garen arren, esperientzia ederra izan da lau urte hauetakoa.

Gidari moduan Maider, Doni eta Eneko izan ditugu. Harrera goxoa egin ziguten eta horrela tratatu gaituzte denbora honetan. Mila esker hiruroi bide zuzenetik gidatzeagatik eta gugatik egin duzuen lan guztiagatik!

Ez dugu inoiz ahaztuko!

Eskuttuneko DBH4ko ikasleak.

22. Korrika

Oso polita eta hunkigarria izan zen. Egunean zehar urduritasuna izan genuen, guretzat amets bat baitzen Korrikan lekukoa eramatea, baina oso gogotsu geunden aldi berean. Eguerdian petoa jaso genuen plazan, giro polita zegoen: dantzariak, tonbola... taldeko argazkia ere atera genuen. Gaur heldu zenean, plaza beteta zegoen, DJ batek Korrikari erritmoa jarri zion; baina urduritasuna ere sumatzen zen, denok goizeko 03:30ak iristeko zain geunden.

Goizeko 03:00etan, Irubide tabernaren parera jaitsi ginen eta han irakasle eta ikasle batzuekin elkartu ginen. Egin beharreko ibilbidea ikusi eta Korrikaren zain egon ginen. A ze urduritasuna eta poza! Desiatzen geunden

Korrikaren hotsa plazatik behera zetorrela entzuteko eta hainbeste denboran amestutako unea iristeko. Hala bada, iritsi zen Korrika.

Zoragarria izan zen lekukoa gure eskuetan sentitzea, hitzez esan ezin den sentimendua. Ez dugu inoiz ahaztuko gau horretan bizi genuena.

Gora Eskuttun!



Elkartasuna, katxalinekin eta izan inurriekin

LH6. mailako ikaslek, diziplinarteko proiektu bezala, elkartasun ekimena antolatu dute aurtien ere.

Hiru ekintza prestatu zituzten:

- Elzteitsuak jarri zituzten dirua biltzeko gure ikastolako geletan eta herriko gune batzuetan.
- Errifak saldu zituzten herrian zehar.
- Martxoaren 8an elkartasun azoka egin zuten herriko plazan.

Errifan saritutako zenbakia 2504 izan zen. Saritua, berriz, Iñaki Mitxelena. Zorionak!

Lortu duten diru guztia Katxalin eta Izan inurri izeneko elkarteei eman diete, bularreko minbizia duten emakumeei laguntzen dietelako.

Biba zuek!





LABURRAK

Azkue Sarietan berriro garaile

Maiatzaren 13an, ostirala, banatu zituzten
Azkue Sariak Bilbon.
Gure hiru ikasle saritu zituzte:

- DBH1eko **Maddi Mitxelena**.
- DBH2ko **Karla Loinaz**.
- Batxilergo Lehen Mailako **Oihane Retegi**.

Horrez gain, beste behin, **Haurtzaro**

Eskolarteko Bertso Paper Lehiaketa 2022

Haurtzaroko sei ikaslek saria jaso dute aurten txapelketan. Honakoak dira irabazleak eta postuak:

2012-2013 urteetan jaiotakoak:

2. **Mikel Castro Lizaso**

2010-2011 urteetan jaiotakoak:

1. **Manex Odriozola Lizaso**

Aipamena:

Mireia Sagarra Martin

2008-2009 urteetan jaiotakoak:

1. **Kattalin Arabolaza Palomo**

2004-2007 urteetan jaiotakoak:

1. **Egiar Otegi Torres**

2. **Ekain Telletxea Delgado**

Zenbait mailatan irabazle bat eta hiru aipamen ematea erabaki dute, jasotako lanen kalitateagatik (2010-2011 urteetan jaiotakoen mailan, adibidez). Zorionak denei!



Ekhi Arizmendik Elkar saria jaso du

DBH2. mailako gure ikasle **Ekhi Arizmendik** lehen saria jaso du Elkar 14. Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketako E mailan, Gogoan zaitut ipuinarekin. Tableta, jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (70€) jaso ditu saritan.

Zorionak!

Gogoan ditut. Gogoan ditut zuk ematen zenizkidan besarkada beroak. Gogoan dut zure muxuek zuten menta zaporea. Gogoan ditut olatuen soinuarekin lo egin ezin nuenean, zuk esaten zenidana: "ez eduki beldurrik itsasoari, urteen poderioz ulertuko duzu gure laguna dela." Gogoan ditut hirurok batera hondartzan, ilunabarrari begira eta aurrean zuk prestatutako piknik bat genuela pasatzen genituen gauak. Gogoan ditut txikia nintzela, triste nintzenean, kontatzen zenizkidan ipuinak. Baina, gogoan dut baita ere, egun batean surf egitera joan zinela, eta ez zinela itzuli etxera. Gogoan dut gau hartan etxeko atea jo zuten bi gizon horien malkoz beteriko aurpegia. Gogoan dut zure hiletaren egunean, aitak esan zidana: "itsasoak zure ama kendu digu". Gogoan dut nola utzi genuen gure kostako etxea aitak eta biok eta nola augurtu nituen seguruenik berriz ikusiko ez nituen lagunak. Gogoan dut nola esan nion agur, urteetan zehar nire laguna zela uste nuen baina azkenean zu niregandik aldentu zuen, itsasoari. Gogoan dut nolakoa zen erosi genuen etxe berria, mendian galdutako baserri zahar bat. Gogoan dut aitak bere esku zegoen guztia egiten zuela ni ongi sentitzeko: nirekin jolasten zen, jostailuak erosten zizkidan... Baina gogoan dut lehenago urdinak ziren begi haletan ikusten nuen iluntasuna. Gogoan dut, zu joan zinela urte bete zen gauean, aita, nire aurrean pozik zegoela ematen zuen aita, negarrez ari zela, bihotza apurtzen zidaten hitz haiek errepikatuz: "zergatik joan zinen? Zergatik utzi ninduzun bakarrik?" Gogoan dut, egun hartatik aurrera dena aldatu zela, lehen aitaren begietan ikusten nuen iluntasun hori, bere bihotzera iritsi zela, jada ez zeukala indarririk aurrera jarraitzeko. Gogoan ditut behin eta berriz errepikatzen zituen hitzak: "itsasoaren errua da, berak eraman zintuen". Gogoan dut, aitak hori esaten zuen bitartean, zuk txikia nintzela esaten zenidana etortzen zitzaizkidan burura: "ez eduki beldurrik itsasoari, urteen poderioz ulertuko duzu gure laguna dela." Gogoan dut, momentu haletan, ez nituela horrela ikusten gauzak, itsasoak nire ondok aldentu zintuen, ezin zen nire laguna izan, ezin nuen ulertu zuk esaten zenidana. Hala ere, gogoan dut, hitz haiek nire buruan jarraitzen zutela, ni haiek aldentzen saiatzen banintzen ere. Baina gogoan dut, urteak pasatu ahala, zure irribarrea, zure menta zaporeko muxuak, zuk kontatzen zenizkidan istorioak... ahazten joan nintzela. Gogoan dut, aitari zuri buruz galdetzen nionean, esaten zidana: "zure ama itsasoak kendu digu, jada ez dago gurekin." Baina gogoan dut, egun batean, hori aldatzea erabaki nuela, egun hartan, ihes egin nuen, eta gure kostaldeko etxera itzuli nintzen. Gogoan dut, itsasoa ikusi nuen momentuan, galdu nituen oroitzapen guztiak kolpetik etorri zirela nire burura: zure irribarrea, zure menta zaporeko muxuak, zuk kontatzen zenizkidan istorioak, dena gogoratzen nuen. Gogoan dut, orduan ulertu nituela zuk esan zenizkidan hitz haiek: "ez eduki beldurrik itsasoari, urteen poderioz ulertuko duzu gure laguna dela." Jada ez nion beldurrik itsasoari. Gogoan dut, burua biratu nuenean, aita ikusi nuela nire atzean, aurpegia malkoz josia zuela. Baina gogoan dut, bere begietan zegoen iluntasun hori desagertu egin zela, eta nik egin nuen bezala, ulertu zituela zure hitzak. Gogoan ditut, orduan aitarekin hondartzan egiten nituen piknikak, kontatzen zizkidan istorioak, eskaintzen zizkidan irribarre goxoak, ematen zizkidan menta zaporezko muxuak... Gogoan dut, azkenik, gure etxe zaharra berriz erosi genuela, eta egunak pasatzen genituela biok hondartzan jolasten. Gogoan dut orain idatzi dizudan gutun hau, aitarekin batera txikitzen aurkitu nuen itsas-maskor baten barruan sartuta dagoela, zu galdu zintudan tokian, zuk gehien maite zenuen tokian, itsaso urdinaren azpian, zuk dastatu, sentitu eta irakur dezazun. Baina denaren gainetik, badakit gogoan izango zaitudala beti, eta ez zaitudala inoiz ahaztuko. Maite zaitut ama, itsasoa ikusiko dugu elkar.

Joseba Sarrionandia: "Zuek zarete artistak"

Juul Irakurzaletasun Kanpainaren barruan, **Joseba Sarrionandia** idazlearen bisita izan genuen ostiralean, apirilak 1.

Udaletxeko pleno aretoan elkartu zen **DBH3 eta DBH4**. mailako ikasleekin eguerdian. Arratsaldean, berriz, **LH6**. mailakoen txanda izan zen.

Ikasleek interes handiarekin jarraitu zuten Sarrionandiak esaten zuena, **galdera asko egin zizkieten, dantzatu eta kantatu zioten eta hainbat opari ere eman zizkieten**. Idazlea, hunkituta eta lotsatuta, ia hitzik gabe geratu zen ikasleei eskerrak ematerakoan, baina **bi gauza garrantzitsu** esan zizkien.

Batetik, eskerrak ematerakoan: "Ni etorri naiz hona gonbidatu gisa, baina ni baino artistagoak zarete! Konturatu naiz eta gauza gehiago egingo duzue guk egin duguna baino".

Bestetik, aholku bat eman zien: "Denbora hartu gauzak ondo pentsatzeko, ikuspegi ezberdinetatik ikusteko, memoria errepasatzeko, elkarrizketak izateko... Denbora hori hartzeko esango nizueke. Eta literatura da modu bat hori egiteko".

Ziur ikasleek ez dituzte ahaztuko zure hitzak. **Mila esker, Joseba eta hurren arte!**



ESKOLAZ KANPOKOAK



Komikigintza

Komikigintza, pandemia hasi aurretik DBHkoei egindako eskolaz kanpoko eskaintza da.

Ikasle talde txikia izan da eta, aldi berean, pandemiak egiten ari ziren lana eten zuen. Ikasturte honetan berriz ekin diote lanari eta *Txinpart!* aldizkari honetan ikus dezakegu egin duten lan bikaina.

Hodei Iparragirre izan da monitorea. Bistan da irakasle bikaina izan dutela ikasleek bidelagun eta asko ikasi dutela.

Zorionak egindako lanagatik eta eskerrik asko!



10. OIARTZO



Etxeparera bisita

Joan zen hilabetea Oiartzoko 1. Batxilergoko ikasleek Baionara ibilaldia egin genuen. Ibilaldi horretan, Etxepare lizeoa bisitatzeko aukera izan genuen, institutuan dauden adin bertsuko ikasleekin lehen topaketa eginez. Irteera honen helburuetako bat euskararen bitartez Euskal Herriko Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko loturak egitea zen. Horregatik, Batxilergo 1go mailan dauden ikasle talde bat ezagutzera joan ginen lizeora, elkarren berri izan eta, desberdintasunak desberdintasun, partekatzen dugun horretaz hausnartzeko.

Elkar ezagutzeko lehen dinamiken ondoren, Oiartzo eta Etxepareko ikasleak taldetxotan jarri eta gure identitatea osatzen duten hainbat faktorez eztabaidatzen jardun genuen: hizkuntza, adina, ikasketak eta zaletasunak, hain zuzen ere. Partaide bakoitzak gure esperientzia partekatu eta, ondoren, orri batean jaso genituen gazteok desberdintasunen gainetik komunean dugun hori, hau da, batzen gaituen hori.

Hausnarketan ondoren, etxeparetarrek lizeoa erakutsi ziguten. Ikasgelak, kiroldegia, kantina, irakasle gela, egoitza... ezagutu genituen. Gu han jasotzea eskertzeko, Oiartzoko ikasleek eskulan bat eraman genuen, bide batez, bueltan Oarsoaldera etortzeko gonbita luzatuz:

Zubiak eraikiz

Gehien baloratu duguna Etxepare Lizeoan emandako tarteak izan da. Adin bereko ikasleen egoera akademikoa ezagutu, eta euskaraz bizi eta ikastearen alde egiten duten eguneroko borroka asko balioetsi dugu, lehen eskutik ezagutu dugulako.

Iparralde eta Hegoalde banatuta bagaude ere, finean gure ikasleek gauza ugari partekatzen ditugu, eta horiei aitortza egin eta balioan jartzea zen trukearen helburu nagusia. Hori guztia, euskaratik eta euskaraz. Adinak, ikasketek eta hizkuntzek **zubiak eraikitze**ko aitzakia eman digute, eta hemendik aurrera, hasi berri dugun bideari jarraipena eman nahi diogu.

Eraikitako bidea mantendu nahi dugu orain, sortutako harremanak mantentzeko. Bigarren kapitulua idazteko irrikaz gaude Oiartzon, etxeparetarrak gurera noiz etorriko zain.

“Mugak ezarriak dira, eta bideak ireki ere egin ditzakegu. Aiako Harriaren beste aldean egongo gara zuen zain”.



HH3n ederki joan
ginen Zarautz alderaka
gero Astitzen ta Sastarrainen
handituz joan pixkanaka
Huitzi, Zuhatza ta Zuberoa
jarraitzen genun goraka
Arotzenean amaitu genun
Lehen Hezkuntzako txanpa

DBH 1en elkartrukean
hainbat bizipen zakura
hurrengo urtean covidagatik
bat-batean zenbat muga
aurtengoan berriz Bartzelonakin
etapa bat bukatu da
orain bakoitzak bere bidetik
aurkituko du helmuga



Haurtzaro Ikastola DBH 4 - 24. promozioa 2022

bizitzarako hezkuntza